

Zuhaitzak eta basoa

TXILLARDEGI



JOSU Telleriak azkeneko 'Argia-n' argitara duen artikuluan, garbi agertzen da AEKak jasaten duen kinkaldien gako Frantsesez imitatzat hau esango nuke: «AEK ne présente pas le bordereau qu'il faut».

Nafarroako Gobernuak, adibidez, AEKren 'identifikazio fiskaleko kodea' onartu du: Jauriaritzak, berriz, banan-bana tratatu nahi du euskaltegi bakoitzarekin. Hauek, bestealde, 'homologatuak' dira, edo-ta 'homologagarriak'... Hitz batez: «borderau, pas de bordereau».

Baina banakako zuhaitz horien atzean, AEK zafratua, kolpatua, ahulduta, dirugabetuta, ukatuta.

AEK Francoren garaian sortu zen, 'sans bordereau'. Euskal Herri osoan ari da. Urtero urtero, Korrika jendetsuan, euskararen alde ateratzen ditu euskaltzaleak kalera harrigarriko herri-ekimenean. Urtean barrena, milaka ikasle euskaldundu eta alfabetatu du lan gaitzaren emaitzaz. Gaiak oraindik (askotan ordainketa apal hori noiz mamituko, irakasleek ez dakitelarik!) eutsi egin dio erakunde miresgarriak apostu horri 'ele' aldizkariak, bestela, artikuluko funtsezkoak argitara ditu...

Ohore galantak denok. Zein euskaltzalek ez du txalo joko?

Jauriaritzak, Jaurilaritza gidatzen duten alderdiek, hobe, ez-ikusia egiten dio horri guztiari. «Et le bordereau?».

Eta horregatik, lerro hauek Andoainen utzita, Bilbora no: beste mila, beste hamar mila, euskaltzalekin elkarturik, AEKrekin egiten den lotsagarrikeria ozkeni salatuz.

Idealak gehi interesak

RAMON LABAIEN




ONARTU dute Nafarroan Eusko Telebistak ba duela zer ikusirik bereaikin eta ba dela garaia beharrezko diren neurriak hartzeko, na-par kozkor bakoitzak izan dezan posibilitatea eusko kulturaren tresna nagusi hori bere etxe barnean mamitzeko. Ez dakit esan daitekeen «herri bat, telebista bat». Baina dudarik gabe Nafarroan gertatutakoa horietako pauso sako bat izan da Euskal Herriaren kultura tinkotzen. Oinarri bat, oinarri beharrezko dabilen gure gizarte humentzat. Alii jaunaren azken erabakia, eta simbolo balioa duen bat. Nafarroan zerbaite berri gertatzen ari den seinalea. Hauteskundeak utzi diguten oparirik politiena.

Hauteskundeak atzo eta ondorioak gaur. Politikariek jo eta ke negoziaketa eta trukean, hazienda feriek izaten duten bezelako hordago giroan, PSOEren zezekan, ongi odoltua izan ba da ere, hor eutsi dio zutik, indar berriak hartuko dituen esperano. Eta hor gelditu da Aznar jauna, ezpata nolabait kamuztu zaiola bere torero jokuan. Euskal Herriari, Alii jaunaren zirrikitua izan ezik, betetan berri denik gutxi. Aipatu denez: Foru Aldundiak leporaino zorretan, egoki den bezela. Horrela egoteak esan nahi duelako ba-tetik, gauzak bilaka egin direla eta alor gutietan... gehienak aspalditik beharrezko zirenak, zeharo ateratuak eta kasu aintzitan ahanziak zeudenak. Eta besterik zorrak ematen dietelako erakunde publikoei iraunkortasun eta etorkizun luze baten ziurtasuna. Zenbat eta ugariago Eusko Erakunde Publikoak dituztenak zordun eta sendoago erakunde horien susturriak. Idealak gehi interesak, horra edozein Nazioaren, bi sostengua nagusiak. Idealak ez zaizkio falta eusko aberztaletasunari. Ziurta dezagun hor dabilzala ere interesak.

Enbata.

Alternatiba helburu

Borroka armatuaren ingurukoa da kontrajartze nagusia. baina horretan ere badaude garrantzi gutxiagoko beste zenbait desadostasun, ezberdinak direlako Iparraldean, bertan abertzale minoritarioak misio-lurretan baitaude, eta Hegoaldean, bertako abertzale maoritarioak Gasteizko Legebiltzarrean autodeterminazio printzipioaren aldeko botoa eman bazuten ere ez datozelako bat Madriekin izan behar duten elkarriketa motaz. Iparraldean, egun, hauteskunde-bideak, askok luzarora «ergelen engainagarritzat» jo dutenak, bertako jende



—Animo, nirea konponduko dela ematen du-eta.

EL ROTO / DIARIO 16

EDITORIALA

guztia barne hartu du, are borroka armatuaren aldekoak ere. Han-hemen hainbat zailtasun izan ba-daitezke ere, joera guztiak dute konpromezu bateratua hartzeko borondatea, EAJ alde bat utzita, gaiak atera berri baitaizoa Baionan Jean Greneten zerrendan sartzeko egindako ahalegina. Udak hauteskundeak aipamarratu beharreko gogoeta interesgarria egin duen Herriaren Aldek berak ere argi eta garbi gaititu ditu Abertzaleen Batasunak zituen susmoak. «Har Hitzak» azken editorialean deitoratu egin du-eta hura beranduegi eratu izana.

Enbata mugimendua 1967an lortutako emaitzen ondorioz, abertzaleek herri honetako indar alternatiba diren kontzientzia hartu dute.

ZUZENDARIARI

Egizan! Bai, baina nola?

Hau da hau emakumeok egunero jasaten duzun zapalketaren latza! Erasok onnahi eta nolana, oztipoak, zailtasunak, makurkeriak izarretik izartera, esparru gehieusuenetan —denetan ez esateagren—, eta, hala eta guztiz ere, hor ari zarete, tinko, zapalketaren aurka, etsi egin gabe. Guk gizezkoak eredu zaituztegu; borrokan eman dituzten urte luze hauetan lorpem baliotsuak eta txalagarriak izan dituzue eta izango, orain artekoan bezalaxe jarraituz gero; zuen jarretak ikasgai ederrak ekarri dizkigu; honela segi dezazula, alajaina! Garbi dago ahalmen eta adimen handiko gizaikiak zaretela eta zuen buruaren jabe izateko ez duzuela inongo gizonen beharrik. Gizezkoak denbora luzez manciatu dugu mundua eta, nire ueste apalean, zuen txanda aspaldian iritsia da, osoki, eta osoki ez bada ere, elkarrekin, bainan, mesedez, ez errepikatu guk egindako okerrak, pranko egin dugu eta.

Une zailetan ere gogor eutsi zuen askapeneri! Nahiz eta erasoak larriegiak izan, hots, gorpuz-bortxaketak zein buru-bortxaketak. Hauek onartezinak eta jasangaitzak dira; honelako jokabideak eten beharra dago behingo batean, jada; honetan nire euskarria igorri nahi dizuet, betiko betian buka datezen. Hauze nire nahi sakona.

Bukatzeok galdera bat luzatu nahi nizuke, denon gogoetarako: Zuek ueste al duzue Francisco Sanchez —Tolosako erasotzalea— ekintza higuigami horiek egitera bultzatu duten eragileak (heziketia sexista; buruagaitz sendatzeko asmorik nahiz gogorik ez duen gizarte sexista; afektibitate, ikumen naturala —berekoa— maitasuna murriztu eta sarri askotan debekatu edota gaitzesten dituen balore materialistadun sistima zigorle hau; alko-

la, droga, ustelkeria... terapia gisa eskeintzen dituen gizarte hau; andreak eta gizonak elkarrekin aurka jarri arreta benetako arazoetatik mantentzen digun politika eredu... benetan desagertuko direla 'Justizia popular' delakoa erabiliz? Ez dakit bada. Azken finean beti iristen naiz toki berberera: Goliat erraldoi eta sasiguztiahauldunaren aurrean. Eta nik eskuian, zer? Habaila eta harria.

XABIER ODRIOZOLA

Muskiz (Bizkaia)

Salba Aristondo, historiadorea?

Askotan ikusten dut astelohenero ETB-leko Firin-Faran saioan ematen den eztabaida, eta sarritan ez naiz ados egon Salba Aristondok botzatzen dituen azterketekin. Argi dago proiektu politiko ezberdinak defenditzen ditugula eta horren ondorioz iritzi ezberdinak eragiten dire.

Hala ere, gauza bai da iritzi ezberdinak izatea eta beste bat historia aldatzea edo aldatzen saiatzea, are gehiago bere burua historiadoretzat aurkezten duen batentzat. Hala iritzi nojan den astelohenero saioan, ekainaren 6an, Gabriel Arestiri buruz hitz egitekoan, Aipatzen zuten Gabriel Aresti iraultzaile bat izanez betiko inbobilistak jarri zirela bere kontra. Horren frogar, Aristondoren hitzetan, Oskorriren kontzertuetara joaten zirenak espainolista deitzen «Arestiren olerkiak kantatzeagatik».

Betiko fundamentalistak batua eta Arestiren kontra? Ez jauna. Batuaren kontra ondo dakigu Euskal Herriari nortzuk egon ziren (EAJko hainbat bikaitar bereziki) eta horrek ez dauka zer ikusirik garai horretako Oskorriren kontzertuekin. Bere haserrea adierazten zuten jentek egiten zuten Oskorriren zeuden ba-

tzuk Movimiento Comunista de España alderdiaren inguruan zeudelako.

Ez naiz sartuko gara horretan jarrera hori egokia zen ala ez, baina Aristondo 'historiadorea': bakoitzari berea.

CARLOS RODRIGUEZ

Bilbo

Lazo urdinekoei

Euskalerrian, zoritxarrez, bai Diktadura bitartean nola azkeneko 20 urtetan ideologia ezberdineko herritar ugari pairatzen ari da daukagun sustraiko arazo politikoak, maila eskaseko politikariek ez bait dute konpontzen, ausardia edo gogo ezagatik.

Alde batek ezker abertzale munduan milaka persona atxilotu, espetxeratu, deportatu, torturatu eta abar izan dira eta guzti hauei eta sendeioei elkartasun adieraziaz izugarriko mobidak eta milaka milioi pezetako dirutza herritarrek banatu diete.

Orain Jose Mari Aldaiaren bahiketa dela eta Gesto por la Paz eta instituzio inguruko elkarte batzuk lazo urdina eramatea erabaki dute protesta eta solidariedade gisa.

Kontuan izanda ezker abertzaleko bakardadean egiten duen presioa ez dela erabakiorra eta lazo urdinekoei agintari instituzionalak dute horretan parte, eta ote litzateke praktikoago euren ere etengabe presionatzea behin betiko konponbidea aurki dezaten guztion sufrimendua lehenbailehen baku dadin? Beste bide guztiak saiaturik daude, lazo urdinekoko barne, eta bistan daude ondorioak, izan ere gainera, «Condenamos la violencia venga de donde venga» eta antzeko esaldietan oinarritzen diren ekintzez indarkeria gehien daukatenen alde jokatzen bait dute beti.

KELMEN SARASOLA

Bilbo


GAIA JARRITA



EGUNKARIAREN jai

Laugarrenko urtea ta bandoa juaz, Usurbil, Iurretta ta Amasa ahaztuaz, gaur Arrasateraipe gustorako guaz, EGUNKARIAK jarrai dezan gu batuz, festetatik festetara amas berriuz.

MAIALEN LUJANBIO



Batzorde Parkeidea: 72564 E / Lege Gerdaitua: SS 800/90 ISSN 1134-640X



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: ISAKI URIA

Zuzendaria: MARTXELLO OTAMENDI

Gorentea: FERMIN LAZKANO

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egoitze nagusia: Gudaren etorbidea, 2/g / 20140 Andoain
 ☎ 300 222 / Erredakzio faxa: 300 255 / Publizitate faxa: 300 797
 Araba: San Antonio, 20 / Leher / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
 ☎ Publizitatea: 13 19 65
 Nafarroa: Irace Monastegia, 45-13 esk. / (Iruñea) dorret / 31011 Iruñea
 ☎ 17 80 7879 / Faxa: 410 37 15 / ☎ Publizitatea: Oñateko: 410 38 55
 Publizitate Lokala: 410 38 46
 Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecan 14, 1.503 Posta
 Kantaila, / 64100 Baitoa / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 28 75 11